



BBUP-K KUDEATZEN DITUEN UDAL-SAREAK ERAGITEKO ETA MANTENTZEKO ZUZENDARITZA-ETA KONTROL-LANETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA. ESPEDIENTE-ZK.: 3299.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendarita Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Gorka Robredo Arzuaga
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak egiteko telefono-zk.: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea da laguntza teknikoko zerbitzua eskaintzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (aurrerantzean, BBUP) kudeatzen dituen udal-sareen mantentze- eta eragiketa-lanen kontrol-, ikuskatze- eta kudeaketa-lanetarako. Besteak beste, hauexek eskainiko dira: Barneko ihesak lokalizatu eta konpontzearekin lotutako jarduketak kontrolatzea eta ikuskatzea, baita hargune berriak eta sarea handitzea ere. - Ur-horniduraren mozketekin eta sarearen eragiketarekin lotutako gainerako jarduketekin lotutako administrazio-kudeaketa. - Zuzendariordetzaren jardueretarako beharrezkoak diren pleguak, memoriak eta dokumentazio teknikoa idazteko laguntza teknikoak. - Hornidura-sareko esku-hartzeei lotutako obra-zuzendaritzei laguntza ematea. - Osasun publikoari aurkezteko kudeaketa-planak egiten laguntzea, indarrean dagoen araudia kontuan hartuta. - Hornidura-sarearen inbentarioa eguneratzea eta BBUPren GIS sisteman integratzen eta mantentzen laguntzea. 2.- Bete beharreko premiak: BBUPk hitzarmenak sinatu ditu edateko ura banatzeko 89 udalerritan bigarren mailako sarea kudeatu, mantendu eta ustiatzeko, eta kontratu honen helburua da zerbitzu horiek kontrolatu eta zuzentzea. Jarduera horren irismena baliabide tekniko osagarriak dira, eta kanpoan eskuratu behar dira kontratu bidez, BBUPren antolamenduaren eta langileen ezaugarriak direla-eta. 3.-Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Ez da egokitzat jotzen lotetan banatzea kontratuaren xede diren lanak modu independentean egiteak kontratua behar bezala egitea zailduko lukeelako ikuspegi teknikitik; era berean, egikaritzapena zailduko luke eta ikuskapena egiteko gaitasuna mugatuko luke, irizpide berari eutsita. 4.- CPV: 71311100-2 Ingeniaritza Zibileko Laguntza Zerbitzuak 5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea:
--



B.- KONTRATUAREN XEDEA

☐ BAI ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua

(BEZik gabe)

**MILIOI BAT LAUROGEITA HEMEZORTZI MILA
ETA BERREHUN EURO (1.098.200,00 EURO),
BEZ-IK GABE.**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 3.020.050,00 euro

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

Balio zenbatetsiak barne hartzen du hornitu beharreko unitate-kopuruaren % 10erainoko igoera, kontratuaren prezioaren % 10eraino, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 301.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 227.07.161.00

- 2027. urtea: 503.341,66 €
- 2028. urtea: 549.100,00 €
- 2029. urtea: 45.758,34 €

5.- Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa Bi (2) URTE.

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena: ☒ BAI ☐ EZ, URTE BATEKO (1) HIRU (3) luzapen.

4.- Berme-epea: URTEBETE (1)

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak

6.- Zati batean jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren batez besteko urteko kuota halako bat izan beharko da gutxienez. (549.100,00 €)



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda, kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak, egikaritze onaren ziurtagirien bidez abalatuta. Halaber, gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izan beharko da.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, Hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen araberrako irizpideen dokumentuak.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

- **Egin beharreko lanen deskripzio-memoria, non bereziki azpimarratuko den espedientearen xedearekin lotutako lanak behar bezala gauzatzeko jarraitu beharreko metodologia.** Zehazki, hauexek dira egin beharreko jarduketak: barne-ihesak kontrolatzea; hargune berriak egitea nahiz sarea handitzea; hornidura eteteko eskaerak kontrolatu, kudeatu eta koordinatzea; obra-zuzendaritzari laguntzea; pleguak nahiz memoria teknikoak egiten laguntzea; eta osasun publikoa kudeatzeko planak egiten laguntzea.

- **Esleitutako talde teknikoaren osaera eta antolaketa.** Kide bakoitzaren kualifikazioa, dedikazioa, esperientziaren deskribapena. Talde teknikoko kideen CVA erantsiko da. Kontratua behar bezala egiteko taldeen antolaketaren eta osaeraren deskribapena, baita kontratua egiteko erabiliko diren baliabide material eta teknikoaren deskribapena ere.

Gehieneko orrialde-kopurua (alde bakarrean idatzita) 30 izango da, ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea 30 orrialdeen barnean zenbatuko da. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko. Muga horrek ez du eraginik talde teknikoko kideen curriculum vitaean.

Aurreko baldintzatzailea betetzen ez bada, balorazioa zigortuko da.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Kontratuaren aurrekontua.

Kontratistak Aurrekontuaren eta Eskaintzaren eranskinean jasotako orria osatuko du. "Prezioa" zutabean, "Eskaintza" apartatuan, kontzeptu bakoitzeko prezio unitarioa eskaintzeko. "Neurketa" apartatukoekin biderkatuta, betearazpenaren aurrekontu partzialak edo kontzeptu bakoitzeko aurrekontu osoak lortuko dira. Betearazpenaren aurrekontu partzialen baturak osatuko du eskaintza ekonomikoa. Kontzeptu bakoitzerako eskainitako prezioei baja eman ahalko zaie.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Mahaiburua:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax 50 puntu
(Bmax + BM) / 2 48 puntu

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

BM.....	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuaren banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

a) Egin beharreko lanen deskripzio-memoria, non bereziki azpimarratuko den espedientearen xedearekin lotutako lanak behar bezala gauzatzeko jarraitu beharreko metodologia. GUZTIRA 33 puntu.

- Barne-ihesak kontrolatzeko, hargune berriak egiteko eta sarea handitzeko metodologia. **10 puntu**
- Hornidura eteteko eskaerak kontrolatu, kudeatu eta koordinatzeko metodologia. **10 puntu.**
- Obra-zuzendaritzari laguntzeko eta pleguak nahiz memoria teknikoak egiten laguntzeko lanen metodologia. **7 puntu.**
- Osasun publikoa kudeatzeko planak egiten laguntzeko metodologia. **6 puntu.**

b) Esleitutako talde teknikoaren osaera eta antolaketa. GUZTIRA 17 puntu.

- Taldeko kide bakoitzaren kualifikazioa, dedikazioa, esperientzia eta kontratuaren helbururako prestakuntza. Talde teknikoko kideen CVa erantsiko da. **6 puntu**
- Taldeen antolaketa eta osaera kontratuaren helburua betetzeko eta modu egokian egiteko. **9 puntu**
- Kontraturako jarritako baliabide materialak eta teknikoak. **2 puntu**

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Bi lizitatzailerak izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta 10 ehuneko-puntu baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan; kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.



L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailleak laneko arriskuengatik erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

SPKLren 309. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatu bitartean kontratuan ezarritakoen aldean benetan gauzatutako unitate-kopuruan soilik gertatzen den aldaketa, baldin eta gastua ez bada kontratuaren prezioaren % 10 baino gehiago handitzen.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI
☐ EZ

KONTRATUAREN IRAUNALDIAN BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat, eta kontratistaren izenean jarduteko edo berau ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian.